

2014/12/09an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA .

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 09/12/2014.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose Mari Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregui
Purificación Regidor Varela
Rosario Arcarazo Arcarazo
Juan Luis Merino Sanabria
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2014ko abenduaren 9an, arratsaldeko bostetan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Landa andrea eta Petralanda jauna.

En Eskoriatza, siendo las diecisiete horas del día 9 de diciembre de 2014 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Beinat Herce Leceta , con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten la Sra. Landa y el Sr. Petralanda.

1.- KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA emateko kontratua prozedura irekiz esleitzeko hasitako espedienteaz aztertu da.

Kontratazio Mahaiak egindako esleipen proposamena ikusita, eta berarekin ados egonda, Udalbatzarrak, Merino jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko kontratua COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A.-k eta ANSAREO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A.-k osatutako ABEEri esleitzea 144.539,12 eurotan gehi %10eko BEZari dagozkion 14.453,91 eurotan. Kontratua baldintza administratibo partikularren agirik gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe egongo da. Aukerako zerbitzuen prezioa, BEZ gabe, honako hau izango da:

- Hiri gunek berriak garbitzea:
 - Kostua unitateko (€/orduko): 35,80
 - Kostua eguneko (€/eguneko): 256,29

- Erdi gunearen garbiketa orokorra:
 - Kostua unitateko (€/orduko): 35,80
 - Kostua eguneko (€/eguneko): 256,29

- Ur beroaz garbitzea:
 - Kostua unitateko (€/orduko): 38,20
 - Kostua eguneko (€/eguneko): 273,50

Bigarrena.- 158.993,04 euroko gastua onartzea indarrean dagoen aurrekontuko 0102.227.442.20.01 aurrekontu aplikazioaren kargura. Diru kopuru hori kontratuaren lehenengo urterako kontratatutako zerbitzuen kostuari dagokio.

Hirugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea dagokion kontratua formalizatzeko.

Laugarrena: Behin betiko esleipen hau Udaletxeko webgunean (kontratatzailearen profila) eta EEAO n argitaratzea.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Berorren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epean erabaki hau jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean, Donostiako auzi-administrazioetarako epaitegian inpugnatu daiteke, jakinarazten den biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, guzti hori bidezkoztat jo daitezkeen beste batzuek gain.

BOTO AZALPENA:

Merino jauna: azpikontratazio honen urteko kostua 160.000 euro da gutxi gorabehera, eta 160.000 euro horiekin Udalak herriko 3 langabetu kontratatu ahal izango lituzke 30.000 eurogatik bakoitza, guztira, 90.000 euro, eta oraindik beste 70.000 euro geldituko litzaizkioke gastatu gabe. Betidanik ari naiz eskatzen kontratazio zuzenak, herriko langabetuekin, kostatuko lukeena jakiteko benetako azterketa bat egiteko. Gero, publikoa defendatzen arituko gara, eta zerbitzuak kontratatzerakoan, azpikontratatu egiten ditugu. Ez dakit erosotasunez edo gaitasun faltagatik den. Ez dakit horrelakorik aurreikusi duzuen edo aurreikusi behar duzuen. Horregatik, aurka bozkatu behar dut.

Alkate jauna: 2011tik, legeriak ez digu lan eskaintza publikorik ateratzen uzten, ez bada oso salbuespeneko kasuetan eta birjarpen-tasekin. Kontratazioa debekatuta egongo litzateke eta legez kanpokoa izango litzateke. Legeriak baimenduko balu, aztertzekoa litzateke, baina, gaur egun ez dago horrelako aukerarik.

Merino jauna: askotan hainbat bide erabiltzen ditugu legerari izkin egiteko, baina, badirudi lana sortzeko ez dagoela horrelakorik egiterik.

Alkate jauna: bateren bat ezagutzen baldin baduzu, esan iezaguzu.

Cantero jaunak galdetu dio idazkariari ea egia den Alkateak esandako ezintasun hori. Idazkariak erantzun dio oso kasu apartekoetan ez bada, eta hau ez da horrelakoetako bat, ezin direla lanpostu berriak sortu eta lan eskaintza publikora atera.

2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.

ESKORIATZAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA emateko kontratua prozedura irekiz esleitzeko hasitako espedientea aztertu da.

Kontratazio Mahaiak egindako esleipen proposamena ikusita, eta berarekin ados egonda, Udalbatzarrak, Merino jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA emateko kontratua GIZADI ELKARTEARI esleitzea prezio honetan: 19,26 €/orduko astegunetan eta 23,18 €/orduko jaiegunetan, gehi BEZari dagozkion 0 euro. Kontratua baldintza administratibo partikularren agiriko gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean jasotako zehaztapenen menpe egongo da.

Bigarrena.- 162.288 euroko gastua onartzea indarrean dagoen aurrekontuko 0301.227.313.10.19 aurrekontu aplikazioaren kargura. Diru kopuru hori kontratuaren lehenengo urterako kontratatutako zerbitzuengatik kalkulaturako kostuari dagokio.

Hirugarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea dagokion kontratua formalizatzeko.

Laugarrena.- Behin betiko esleipen hau Udaletxeko webgunean argitaratzea (kontratatzailaren profila).

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Berorren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtoaren aurretik, hilabeteko epean erabaki hau jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean, Donostiako auzi-administratioetarako epaitegian inpugnatu daiteke, jakinarazten den biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, guzti hori bidezkotzat jo daitezkeen beste batzuek gain.

MERINO JAUNAREN BOTO AZALPENA: Nik aurreko puntuan esandakoari eusten diot. Baina, irabazi asmorik gabeko esleipenduna denez, eta uste dudanez aurreko zerbitzuaren esleipendunaren kalifikazio bera ez duela, kasu honetan abstenitu egingo naiz.

4.- GALDE-ESKEAK.

4.1.- Jose Aranaren ondorengo abokatuek deitutako bilera.

Merinok egindako galderari erantzunez, Alkateak jakinarazi dio datorren abenduaren 17an, 17:00etan, izango dela bilera, eta deitutako jende kopurua dela-eta, udaletxean egingo dela.

4.2.- Zaldibar antzokiaren obren kostua.

Merino jaunak galdetu du ea antzokiaren obra osoak izan duen kostuaren eta antzokiaren mantenimenduaren kostuaren berri eman behar zaion herriari. Esan du atzo komunikabide batean irakurri zuela Bergarako Udalak ere kapilla bat zaharberritu duela erabilera berberetarako, eta horren kostua 50.000 eurokoa izango dela. Honakoa ere esan du: pentsatzen jarraitzen dut hau herri honi egin zaion lapurreta handiena dela, eta gainera, ez dakigu zenbat kostatu behar zaigun lokal hori mantentzea, beste karga bat izango da, eta ez dakigu Udala gai izango den horri aurre egiteko; gastatukoaren berri, partidaz partida, herriari jakinarazi dakiola gura dut, bestela, nik egingo dut.

Alkatea: uste dut behin baino gehiagotan eskatu duzun informazioa dela, eta eman zaizula, eta parte hartze batzordean ere horren berri eman da. Mantentze kostuari dagokionez, jakina aurreikuspen batzuk eginda daudela, besteak beste, 2015eko aurrekontuan partida bat sartu behar delako. Kalkulu horiek eginda daude, eta Eskoritzako Udalak kostu horri aurre egin ahal izango dio. Eta Eskoritzako herriari egindako lapurreta handiena izan dela esandakoari dagokionez, horri buruz luze eta zabal hitz egin daiteke, hemen azpiegitura asko egin direlako horrek dakartzan mantentze gastuekin, eta ezin dira batzuk kritikatu, eta beste batzuk ez; eta adibide bezala, gobernu taldean zu egon zinenekoak jarriko ditut: Ibarraundi, Musika Eskola lekuz aldatzea eta Kulunka. Orokorrean, esan behar da Eskoritzako azpiegiturak kostu nahiko orekatuak dituztela. Gainera, ezin da ahaztu kultur ekintza asko inoren azpiegituretan egiten direla, Udalak ez duelako azpiegituretik, adibidez, unibertsitatean egiten direnak; eta beste batzuk, Musika Eskolak egiten dituenak, esaterako, elizan egin behar direla arrazoi horrengatik. Eskoritzan ez dago horretarako beste udal eraikinik, beste herri batzuetan egon daitezkeen moduan.

2014/12/09

**Ez Ohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario**

Merino jauna: ni hor egin den astakeria ekonomikoaren aurka nago. Santa Marinatik datorren diruarekin finantzatu da, hasiera batean etxebizitza sozialak egiteko zena, eta kontra-mozio baten bidez helburua aldatu zitzaiona. Eta horregatik uste dut lapurreta dela. Argi gera dadila ez nagoela kulturaren aurka, ez dadila esan, egia ez delako, Ezker Anitza kulturaren aurka dagoela, ni hor egindako lapurretaren eta diru-xahuketaren aurka nago.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 17:30ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- ADJUDICACION DEL CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA

Examinado el expediente incoado para adjudicar por procedimiento abierto el contrato de prestación del SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA.

Vista la propuesta de adjudicación que hace la Mesa de Contratación, y hallada conforme, el Pleno, con el voto en contra del Sr.Merino y el voto favorable del resto de los corporativos asistentes, ACUERDA:

Primero: Adjudicar a la UTE formada por la COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES S.A y ANSERO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS S.A. la prestación del SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA por un precio anual de los servicios obligatorios de 144.539,12 euros más 14.453,91 euros, correspondientes al 10% IVA y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista. El precio de los servicios opcionales, IVA no incluido, queda fijado en:

- Limpieza de nuevas zonas urbanas:
Coste unitario (€/hora): 35,80
Coste jornada (€/jornada): 256,29
- Limpieza general del casco urbano:
Coste unitario (€/hora): 35,80
Coste jornada (€/jornada): 256,29
- Fregado con agua caliente:
Coste unitario (€/hora): 38,20
Coste jornada (€/jornada): 273,50

Segundo: Aprobar el gasto de 158.993,04 euros cargo a la aplicación presupuestaria 0102.227.442.20.01 del vigente Presupuesto, siendo el mismo correspondiente al costo de los servicios contratados durante el primer año de duración del contrato.

Tercero: Facultar al Sr. Alcalde para que formalice el correspondiente contrato.

Cuarto: Dar publicidad a la presente adjudicación definitiva en la página web del Ayuntamiento (perfil de contratante) y en la DOCE.

Quinto: El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el

plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

EXPLICACION DEL VOTO:

Sr. Merino: El costo anual aproximado de esta subcontratación es de 160.000 euros, y con esos 160.000 euros este ayuntamiento podría contratar a 3 parados del pueblo por 30.000 euros cada uno, que sumaría 90.000 euros y quedaría otros 70.000 euros sin gastar. Desde siempre estoy pidiendo que se haga un estudio real de lo que costaría una contratación directa y con gente parada de este pueblo. Luego estamos defendiendo lo público y a la hora de contratar servicios los subcontratamos. No se si es por comodidad o por incapacidad. No se si lo habéis contemplado o no y si lo vais a contemplar. Por eso voy a votar en contra.

Sr. Alcalde: Desde el año 2011 el marco legal no permite sacar OPEs, salvo casos muy excepcionales y con tasas de reposición. La contratación estaría prohibida y sería ilegal. Si el marco legal permitiese, sería una opción a estudiar, pero a la fecha no existe esa posibilidad.

Sr. Merino: Muchas veces empleamos fórmulas para sortear la legalidad, parece que para crear empleo no hay recovecos legales.

Sr. Alcalde: Si tu conoces alguno, nos lo dices.

El Sr. Cantero pregunta a la secretaría si es cierto la imposibilidad comentada por el alcalde. La secretaria responde que salvo casos muy excepcionales, que no es este, no se pueden crear plazas nuevas y sacarlas a OPE.

2.- ADJUDICACION DEL CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA

Examinado el expediente incoado para adjudicar por procedimiento abierto el contrato de prestación del SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA EN EL MUNICIPIO DE ESKORIATZA.

Vista la propuesta de adjudicación que hace la Mesa de Contratación, y hallada conforme, el Pleno, con la abstención del Sr. Merino y el voto favorable del resto de los corporativos asistentes, ACUERDA:

Primero: Adjudicar el contrato de prestación del SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA a GIZADI ELKARTEA por un precio de 19,26 €/hora día laborable y 23,18 €/hora día festivo, más 0 euros correspondientes al IVA y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista

Segundo: Aprobar el gasto de 162.288 euros con cargo a la aplicación presupuestaria 0301.227.313.10.19 del vigente Presupuesto, siendo el mismo correspondiente al costo estimado de los servicios contratados durante el primer año de duración del contrato.

Tercero: Facultar al Sr. Alcalde para que formalice el correspondiente contrato.

Cuarto: Dar publicidad a la presente adjudicación definitiva en la página web del Ayuntamiento (perfil de contratante).

Quinto: El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

EXPLICACION DE VOTO DEL SR. MERINO: Yo mantengo lo dicho en el punto anterior. Lo único, como se trata de una adjudicataria sin ánimo de lucro y considero que su calificación no es igual a la adjudicataria del servicio anterior, en este caso me voy a abstener.

4.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

4.1.- Reunión convocada por abogados del descendiente de Jose Arana.

Previa pregunta hecha al efecto por el Sr. MERINO, el Alcalde le informa que la reunión tendrá lugar el próximo 17 de diciembre, a las 17:00 horas y en el Ayuntamiento en atención al número de personas convocadas.

4.2.- Costo de las obras de Zaldibar antzokia.

El Sr. Memino pregunta si no se va a informar al pueblo de todo el costo que ha supuesto la obra del antzoki y sobre el que va a costar su mantenimiento. Dice que ayer leyó en un medio de comunicación que el Ayuntamiento de Bergara ha rehabilitado también una capilla para los mismos usos y que el costo que le va a suponer es de 50.000 euros. Continúa diciendo: sigo pensando que este es el mayor robo que se ha hecho a este pueblo y además no sabemos lo que va a suponer el mantenimiento de ese local, será otra carga más que no sabemos si el ayuntamiento podrá soportar; quiero que se informe al pueblo todo lo que se ha gastado partida por partida, si no lo haré yo.

El alcalde: Yo creo que es una información que has pedido más de una vez y se te ha dado, y en la comisión de participación se ha informado también. En cuanto al costo de mantenimiento, claro que hay hechas unas previsiones porque hay que contemplar una partida en el Presupuesto de 2015. Esos cálculos están hechos y el ayuntamiento de Eskoriatza va a poder a sumir ese costo. Y en cuanto que es el mayor robo que ha tenido Eskoriatza, se puede discutir sobre ello largo y tendido, porque aquí se han hecho muchas infraestructuras con sus correspondientes gastos de mantenimiento, y no se puede criticar unas si y otras no; y pongo como ejemplo aquellas que se hicieron estando tu en el equipo de gobierno, como es el caso de Ibarraundi, el traslado de Musika Eskola, Kulunka. En general hay que decir que las infraestructuras de Eskoriatza tienen unos costos bastante equilibrados. Además, no hay que olvidar que muchas actividades culturales se hacen en infraestructuras ajenas porque no hay municipales, como es el caso de las que se hacen en la universidad; y que otras actividades, como las que hace Musika Eskola, se tienen que hacer por ese motivo en la iglesia. En

Eskoriatza no había ningún edificio municipal alternativo, como ha podido haber en otros pueblos.

Sr. Merino: Yo estoy en contra de la barbaridad económica que se ha hecho allí. Se ha financiado con un dinero que proviene de Santa Marina, que inicialmente estaba destinado a la construcción de viviendas sociales y al que por una contra-moción se le cambió de destino. Y por eso considero que es un robo. Que quede muy claro que no estoy en contra de la cultura, que no se diga, porque no es verdad, que Ezker Anitza está en contra de la cultura; con lo que estoy en contra en con el robo y despilfarro que se ha llevado a cabo allí.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:30 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.